

SOZIEATE PUBLIKOAREN ESTATUTUAK

aparkabisa

Centro de transportes de Bizkaia
Bizkaiko garraio gunea

I. TITULUA.

IZENA, XEDEA ETA IRAUPENA.

1. artikulua.- Izena.

Sozietate anonimoen kategoriako merkataritza-sozietate bat osatu eta sortu da, "APARKABISA, BIZKAIKO GARRAIO GUNEA AB - CENTRO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA SA" izenarekin, eta honako estatutu hauek, Kapital Sozietateen Legeak, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bateginean jasotzen denak, eta gainerako lege-xedapen osagarriek arautuko dute sozietatea.

2. artikulua.- Helbidea.

- 1.- Egoitza soziala Trapagaranen du (El Juncal auzoa, zk. g.).
- 2.- Administrazio Kontseiluak helbide soziala lekualda dezake, udalerrriaren barruan bada.
- 3.- Sozietatearen bulegoak, lantokiak, industria-instalazioak, gordailuak, sukurtsalak edo ordezkartzak edonon ireki, lekualdatu, egokitu edo kendu ditzake Administrazio Kontseiluak, eta, horrez gain, horien eskumenak, betekizunak eta funtzionamendua ere arautu ditzake.

3. artikulua.- Sozietatearen xedea.

"3. artikulua.- Sozietatearen xedea.

1.- APARKABISAk, Bizkaiko Garraio Gune den aldetik, baditu atxikita xede jakin batzuk, alde batetik, eta araugintzako helburu estrategikoak betetzeari lotuta, zehazki, ibilgailu astunen garraioa antolatzea, jabari publikoa libre utziko duen aparkamendu-jarduera bideratuz, ildo horretatik bizi-kalitatea eta bide-segurtasuna hobetuta; eta, bestetik, garraio publikoarekin konektatzea intermodalitate-erregimenean, aldirietako aparkalekuen jardueraren bidez. Horrez gain, salgaien eta pertsonen garraiorako azpiegituren eskariari erantzungo dio APARKABISAk, mugikortasun jasangarrira, trantsizio energetikora eta klima-aldaketara hobeto moldatzeko, horrela.

Aipatutako helburu horiek lortzeko, APARKABISA sozietatearen xedea, zehazki, honako hau izango da: Bizkaiko lurralde historikoan, garraio-azpiegitura logistiko eta intermodalak sustatzea, prestatzea eta ustiatzea, pertsonen eta salgaien garraiorako. Zehazki, era honetako garraio-azpiegiturak sustatzean, prestatzean eta ustiatzean datza: salgaien garraio eta logistikako zentral integralak, salgaien eta pertsonen garraiorako mota guztietako ibilgailu astunetarako aparkalekuak, garraio publikoarekiko konexioa indartzen duten aldirietako aparkalekuak, bidaiarien garraiorako geltokiak edota aldageltoki modalak.

2.- Helburu horiek gauzatu ahal izateko, honako ekintza hauek abiarazi ahal izango ditu APARKABISAk:

- a) Azterketak egitea, hala nola hirigintzako planak eta proiektuak, bai eta indarrean den hirigintzako legediaren arabera horrelakoak izapidetzeko eta onartzeko egokiak izan daitezkeen ekimenak ere.*
- b) Sozietatearen xedean biltzen diren garraio-azpiegiturak egitera zuzendutako hirigintza-ekintzak gauzatzea, azpiegitura-lanak eginez, urbanizatuz eta zerbitzuen zuzkidura bidez, bai eta hirigintza-plangintzan zehaztutako helburuetarako beharrezkoak diren bestelako ekintzak ere.*



- c) *Eraikuntza-jarduera garatzea, sozietatearen xedea zuzen bete ahal izateko behar diren eraikinak egiteko.*
- d) *Hirigintzako eta eraikuntzako jardueraren ondoriozko obra eta zerbitzuak kudeatzea, ustiatzea eta mantentze-lanak egitea.*
- e) *Ondasun higigarrien edo higiezinaren gaineko orotariko eskubideak eskuratzea, eskualdatzea, eratztea, aldatzea, trukitzea edo azkentzea, zuzenbide erkideak baimentzen duenaren barnean, betiere, dagokion jarduketa-eremuan hirigintza, eraikuntza eta aprobetxamendua errazago bideratu ahal izateko.*
- f) *Bakoitzaren eskumenaren arabera, laguntzaile izango diren erakundeekin hitzarmenak egitea, kudeaketak ahalik eta arrakasta handiena izan dezan.*
- g) *Hirigintza-plangintza egikaritzeko obrak eta zerbitzuak kudeatzea, zuzenean edo besterentze edo alokairu bidez.*
- h) *h)*
- i) *Sozietatearen xedea lortzera bideratutako beste edozein ekintza, zuzenbidearen arabera, betiere.3.- Sozietateak esleitu dituen obrak, lehia askearen araubideari jarraiki, eta inoiz ezin izango dituen gauzatu sozietateak zuzenean."*

4. artikulua.- Sozietate anonimoaren hasiera eta iraupena.

Sozietate anonimoa eratzean, xedatu da iraupen mugagabea izango duela, eta eratzen den unean hasiko da haren jardura.

II. TITULUA. KAPITALA

5. artikulua.- Kapital soziala.

1.- Kapital soziala 17.208.707,00 eurokoa (hamazazpi milioi, berrehun eta zortzi mila, zazpiehun eta zazpi euro) da, eta 125.611 akzio (ehun eta hogeita bost mila, seihun eta hamaika akzio) osatzen

dute zenbateko hori; akzio horietako bakoitzak 137,00 euroko (ehun eta hogeita hamazazpi euro) balio nominala du, eta 1etik 125.611ra bitarteko (biak barne) zenbakiak daramatzate, hurrenez hurren; mota bakarrekoak dira guztiak, eskubide sozial eta politiko berberak dituztenak, eta tituluetan gauzatzen dira, baita titulu anizkoitzetan ere, Administrazio Organoak hala erabakitzen badu.

Taloi-liburuetan antolatuko dira akzioak.

2.- Honako hauek egin ahal izango dituzte sozietatearen kapitaleko ekarpenak: Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta sozietatearen jardunaren eraginpean dauden udal-barrutietako udalek, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak, Bilboko portu autonomoak eta APARKABISAren jardura orokorrean interesa izan dezakeen edozein erakunde publikok edo pribatuk.

3.- Sozietateari egindako ekarpenak dirutan egin daitezke, bai eta dirutan baloratu daitezkeen ondasun eta eskubide askotarikoetan ere.

Guztiz harpidetuta eta ordainduta dago kapital soziala.



6. artikulua.- Akzioak.

1.- Akzioak izendunak dira, eta dagokien zenbatekoa osorik ordainduko da akzioak harpidetzean, sozietatea eratzen denean. Akzioak jaulkitzen diren hurrengo aldietan, Batzar Nagusiak zehaztuko du harpidetzak egitean ordaintzen ez den kapitalaren zatia zer baldintzatan ordainduko den, baina zati horrek ezin du izan harpidetutako akzio bakoitzaren balio nominalaren % 75 baino handiagoa.

2.- Sozietatearen akzioak besterendu nahi dituen bazkideak idatziz jakinarazi behar dio Administrazio Kontseiluari, eta honek, hilabeteko epean, gainerako akziodunei jakinaraziko die.

Bi hilabeteko epean izango dute horiek akzioak erosteko eta erosketa gauzatzeko aukera, eta, akzioak erosi nahi dituztenak bat baino gehiago badira, horien artean banatuko dira, bakoitzak duen partaidetzaren arabera.

Salgai jarritako akzioetan interesik jarri duen bazkiderik ez badago, sozietateak eskuratu ahal izango ditu, baina, horretarako, kapitala murrizteko erabakia hartu beharko du aurrez sozietatearen Batzar Nagusiak, bazkideei dagokien epea amaitu eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean. Kapitala murrizteko erabakia hartu ondorengo hogeita hamar egunetan eskuratuko dira, eta horrela eskuratutako tituluak eskuratze-epetaren barnean amortizatuko dira (Sozietate Anonimoen Legea, 77.a art.).

Azken epe hori amaitzen denean, bazkidea aske izango da bere akzioak eskualdatzeko, komenigarri iruditzen zaion moduan, eta bi hilabeteko epean egin beharko du hori.

Lehentasunez erosteko aurrez ezarritako eskubideaz baliatzeko, salmenta-prezioa ekitateko arbitraje batek finkatuko du, desadostasunik sortzen bada, estatutu hauetako 38. artikuluan xedatzen denarekin bat etorrira.

Sozietatearen partaidetzak eskualdatzen direnean, bahiaren eskubide erreala eratzean eta gainerako eskubideak eratzean, horiek guztiak eskritura publikoan jasoko dira.

7. artikulua.- Bazkide-izaera.

Akzio baten edo gehiagoren titularra izateak bazkide-izaera emango dio hari, eta Legean eta estatutu hauetan jasotzen diren eskubide eta betebeharrak izango ditu.


8. artikulua.- Akzioen erregistro-liburua.

1.- Akzioen titularrak, ondoz ondoko transferentziak edo/eta horien gainean izan daitezkeen eskubide erreal, karga edo zerga guztiak akzioen erregistro-liburuan idatziko dira, Administrazio Kontseiluko idazkariaren zainzapean.

2.- Artikulu honetan aipatzen den erregistro-liburuan akzioen titular gisa ageri diren pertsonen izenak aitortuko die sozietateak bazkide-izaera, dagozkien eskubide aktibo eta pasiboekin.

3.- Akziodun orok aztertu ahal izango du akzio izendunen erregistro-liburua, horretarako eskaria eginez.

4.- Akzio izendunen tituluak inprimatu eta eman bitartean, akziodunek eskubidea dute haien izenean inskribatutako akzioen ziurtagiria eskuratzeko.



9. artikulua.- Akzioen titularkidetasuna, bahia eta gozamena.

Akzioen titularkidetasunaren, bahiaren eta gozamenaren kasuetan, Kapital Sozietateen Legearen 126. artikuluan eta 132. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

III. TITULUA. SOZIETATEAREN ORGANOAK.

10. artikulua.- Sozietatearen organoak.

1.- Hauek dira sozietatearen gobernu-organok:

- a) Akziodunen Batzar Nagusia.
- b) Administrazio Kontseilua.
- c) Zuzendaritza Nagusia.

2.- Ezin izango dute sozietate honetan kargurik bete edo, hala dagokionean, kargurik erabili Kapital Sozietateen Legean edo harekin bat egiten duten xedapenetan ezarritakoaren arabera bateraezinak diren pertsonak edo debeku-kausaren batean daudenek.

LEHEN ATALA: AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA.

11. artikulua.- Haren erabakien izaera eta nahitaezkotasuna.

Legearen arabera deitu eta eraturako Akziodunen Batzar Nagusia da sozietatearen organo subiranoa. Batzar horrek hartu ditzakeen erabakiak akziodun guztiek bete beharrekoak dira, baita batzarrean ez daudenek, disidenteez eta batzarkide-izaera etenda dutenek ere.

12. artikulua.- Batzar Nagusi motak.

1.- Batzar Nagusien bilkurak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

2.- Ohiko Batzar Nagusia ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilabetean bilduko da, sozietatearen kudeaketa eta aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko, hala dagokionean, eta emaitzen aplikazioaz ebazteko.

3.- Batzar Nagusiaren gainerako bilera guztiak ezohikoak izango dira, eta edonoiz egin ahal izango da bilkura, haren eskumeneko edozein gai aztertzeke, Legeak berariaz Ohiko Batzar Nagusiarik esleitzen dizkionak salbuespentzat hartuta.

13. artikulua.- Batzar Nagusietara joatea.

1.- Akzioen Erregistro Liburuan akziodun gisa ageri diren guztiek parte hartu dezakete Batzar Nagusietan, hitza izanda eta botoarekin, bileraren eguna baino bost egun lehenago gutxienez halakotzat ageri badira.

2.- Ez dute boto-eskubiderik izango dibidendu pasiboen ordainean berandutu diren akziodunek.



3.- Administrazio Kontseiluko kideek Batzar Nagusien bilkuretara joan behar dute.

4.- Batzar Nagusiaren bileretara joan ahal izango du Zuzendaritza Nagusiak, eta hitza izango du, baina ez botorik.

5.- Batzar Nagusiko lehendakariak bilkuran bazkide ez diren pertsonak izatea onar dezake, eta hitza izango dute pertsona horiek, baina ez botorik.

Gai-zerrendako puntu jakin bati buruzko informazioa emateko pertsona batzuei dei egin bazaie, bileran gai hori aztergai den unean soilik izango dira bileran.

6.- Aztertutakoak erregistratu edo grabatzeko zeregin osagarriak egin ahal izateko, batzarreko lehendakariak beste pertsona batzuen lankidetzat baimendu dezake, zeregin horietarako soilik; eta Batzar Nagusia egiten ari diren lekuan egon ahal izango dira pertsona horiek.

7.- Batzarrean bide telematikoetatik parte hartzeko aukera emango da, subjektuaren nortasuna behar bezala bermatzen badute bide horiek. Deialdian, akziodunek beren eskubideak baliatzeko dituzten epe, bide eta moduak deskribatuko dira, administratzaileek Batzar Nagusia egoki garatzeko aurreikusitakoaren arabera. Zehazki, bide telematikoetatik parte hartu behar duten kideek esku-hartze edo erabaki-proposamen batzuk egiteko asmoa badute, administratzaileek erabaki hau hartu dezakete: proposamen edo esku-hartze horiek sozietateari batzarra osatu aurretik bidaltzea. Batzarrean informazio-eskubidea baliatzen duten akziodunei idatziz erantzungo zaie, batzarra egin ondorengo zazpi eguneko epean.

8.- Legearen eta estatutu hauen arabera batzarrean parte hartzeko eskubidea dutenetatik aparte beste norbaitzuei bilkuran parte hartzeko baimena eman badie lehendakariak, baimen hori atzera bota ahal izango du Batzar Nagusiak.

14. artikulua.- Deialdia, quoruma, funtzionamendua, erabakiak hartzeko araubidea eta karguak izendatzea.

1.- Batzar Nagusietarako deialdia, bai ohikoetarakoa eta bai ezohikoetarakoa, gai honetan aplikagarria den indarreko legedian aurreikusten denaren arabera egingo da.

2.- Akziodunen bi heren biltzen direnean (zuzenean edo ordezkarien bidez) lehen deialdian eta horiek kapital sozialaren ehuneko horixe bera ordezkatzeko dutenean, eratzat joko da Batzar Nagusia. Bigarren deialdian, aski izango da kapital sozialaren gehiengoa, bilkuran dauden bazkideen kopurua dena delakoa izanik ere.

Bileran diren kideen gehiengo absolutuaren bidez hartuko dira erabakiak, eta akzio bakoitzari boto bat dagokio. Legean edo estatutuetan xedatutakoa kontuan izango da, bai batean eta bai bestean hainbat akordiotarako kapitalaren edo akziodunen gehiengo handiagoa eskatzen denean.

Batar mota orotako gai-zerrendan jasotzen diren puntuei dagozkien proposamenetan, botoa eman behar bada, akziodunak botoa beste baten esku utz dezake, edo berak eman dezake, posta arruntez, posta elektronikoz edo urrutiko beste komunikabide mota baten bidez, boto-eskubideaz baliatzen den subjektuaren nortasuna behar bezala bermatzen bada.

Botoa urrutetik ematen duten akziodunak bertaratutakoen parekotzat hartuko dira, batzarra eratzeko unean.



3.- Administrazio Kontseiluko lehendakaria izango da Batzar Nagusiko burua; hura falta bada, lehendakariordea izango da buru, eta biak falta badira, karguan urte gehien daraman batzarreko kidea, eta berdintasunik badago, adin handiena duena. Idazkari kargua Administrazio Kontseiluan idazkari denak beteko du, eta hura falta bada, kide gazteena izango da idazkaria.

15. artikulua.- Batzar Unibertsala.

Batzar Nagusirako deialdia egintzat eta batzarra edozein gai aztertzeko eraturtat joko da, berariazko deialdirik egin beharrik gabe, ordaindutako kapital guztia han bilduta delarik, bertaratu diren guztiek aho batez bilera egitea adosten badute.

16. artikulua- Batzarrerako ordezkariak.

1.- Batzar Nagusira joateko eskubidea duen akziodun orok bere ordezkaria izan dezake batzarrean, beste akziodun baten bidez.

2.- Ordezkariak hori idatziz egiaztatu behar dira, batzar bakoitzean, eta batzarreko lehendakariak oro har egoki irizitako eskakizun, berme eta formalitateak ezar ditzake, baimen horrekin lotuta.

3.- Akziodunen batek beste akziodun baten ordezkari gisa esku hartzeko eta, horrela, estatutu hauetako 15. artikuluan aurreikusitako Batzar Unibertsala egitea erabakitzeko, behar-beharrezkoa izango da berariaz besteak horretarako ahalmena/ahalordeak ematea.

4.- Urruneko komunikabideen bidez ere eman daiteke ordezkatzeko ahalmena, botoa urrutitik emateko eskubideaz baliatzeko legezko eskakizunak betetzen badira, betiere, eta batzar bakoitzerako berariaz egiten bada.

5.- Ordezkariak hori ezezta daiteke.

Ordezkariak pertsona batzarrera badoa, ezeztatu egingo da ordezkariak.

BIGARREN ATALA: ADMINISTRAZIO KONTSEILUA.

17. artikulua.- Izaera.

Administrazio Kontseilua da sozietatearen kudeaketa- eta ordezkariak- organoa, neurririk zabalenean, bai auzietan bai auzietatik kanpo, eta Batzar Nagusiak hartutako baliozko erabakietatik eratorritakoak eta legeak edo estatutuek batzarrari berariaz emandako ahalmenak dira muga bakarrak.

18. artikulua.- Osaera eta izendapena.

1.- Administrazio Kontseiluak gutxienez sei kide eta gehienez hamabost izango ditu.

2.- Batzar Nagusiak hautatuko ditu Administrazio Kontseiluko kideak, bozketa bidez, kapital sozialaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin. Ondorio horietarako, borondatez biltzen diren akzioek, kapital soziala kontseilua osatzen duten kideen kopuruaz zatitzean ateratzen den zifra bereko edo handiagoko kapital-zifra osatu arte, eskubidea izango dute proportzio horretatik zatiki osoak gaindituz ateratzen direnak izendatzeko. Horrela elkartutako akzioek ez dute parte hartuko kontseiluko gainerako kideen bozketan.



3.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako gehiengoarekin, Batzar Nagusiak lehendakaria eta lehendakariordea izendatuko ditu Administrazio Kontseiluko kideen artetik.

4.- Idazkari kargua Administrazio Kontseiluak hornituko du.

5.- Kontseiluko kide izateko ez da beharrezkoa izango akziodun izatea.

19. artikulua.- Iraupena eta berrikuntza partziala.

1.- Kontseiluko kidearen karguak gehienez lau urteko iraupena izango du, izendatzen denetik zenbatzen hasita.

2.- Administrazio Kontseiluko kideek karguari uko egiten badiote edo dimisioa aurkezten badute, organo horrek edo, hala badagokio, Akziodunen Batzar Nagusiak onartu ahal izango ditu.

3.- Kontseiluaren kudeaketa-epean karguak hutsik geratzen badira, Batzar Nagusiak ordezkioak izendatuko ditu, izendapenerako ezarritako baldintza berberekin.

4.- Batzar Nagusiak edozein unetan handitu ahal izango du Administrazio Kontseiluko kideen kopurua, bai eta titularrak izendatu eta izendatutakoak berritu ere.

5.- Batzar Nagusiak egoera honetan soilik erabaki ahal izango du Administrazio Kontseiluko kideen kopurua murriztea: plaza hutsik badago, edo kontseilua izendatu zeneko epea amaitu bada, amortizatzen den plazarri dagokionez, betiere.

6.- Batzar Nagusiak edozein unetan kendu ahal izango ditu administratzaileak kargutik, nahiz eta gai-zerrendan jasota ez egon.

20. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren bilerak

1.- Administrazio Kontseilua lehendakariak deitu ahal izango du, egoki irizten dionean, eta hilean behin gutxienez.

Administrazio Kontseiluko kideen heren batek (gutxieneko kopurua) ere egin ahal izango du deialdia, gai-zerrenda adierazita, eta egoitza soziala dagoen herrian egingo da bilera, baldin eta, lehendakariak aldeztu aurretik eskatuta, hilabeteko epean deialdia egin ez bada, justifikatutako arrazoirik gabe.

2.- Deialdia berrogeita zortzi ordu lehenago egingo da gutxienez, lehendakariak presakotzat jotzen dituen kasuetan izan ezik, eta aztertu beharreko gai-zerrenda zehaztuko da.

Salbuespen gisa, lehendakariak edo haren ordezkioak telefonoz, faxez, posta elektronikoz edo bideokonferentziaz egin ahal izango du Administrazio Kontseiluaren bilerarako deia, bai eta gainerako bitarteko elektronikoz ere, horretarako aurrerapen-eperik bete beharrik gabe, betiere, haren ustez deialdi hori justifikatzen duten aparteko inguruabarrak daudenean.

3.- Administrazio Kontseilua edozein gairi buruz hitz egiteko deitu eta eratu dela ulertuko da, baldin eta kide guztiek aho batez erabakitzen badute kontseilua egitea. Administrazio batek ere ezin izango du beste baten ordezkari gisa esku hartu aurreko puntuan aipatutako erabakia hartzeko, salbu eta estatutu hauetako 21.3 artikuluan aipatzen den baimenak berriaz horretarako ahalmena ematen badio ordezkariari.



4.- Aurreko zenbakian aurreikusitakoa salbu, Administrazio Kontseiluak aldez aurretik bidalitako gai-zerrendan adierazitako gai ei buruz bakarrik erabaki ahal izango du.

21. artikulua.- Kontseiluan parte hartzea.

1.- Une horretan kontseiluko kidei diren guztiak joan ahal izango dira kontseiluaren bileretara, eta hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea izango dute.

2.- Administrazio Kontseilua behar bezala eratzeko, kideen erdiak gehi bat bertaratu beharko dira, aurrez aurre edo ordezkatuta, estatutu hauen 20.3 artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik.

3.- Kontseiluko kideek beste kide baten ordezkaritza hartu ahal izango dute soilik, hura joan ezin denean edo ezinduta dagoenean, eta bilera bakoitzerako idatzizko baimena beharko dute horretarako.

Ordezkariek estatutu hauetako 20. artikuluko hirugarren paragrafoan aurreikusitako Administrazio Kontseiluaren ezohiko bilera baliozkotasunez deitu ahal izateko, baimenak berariaz jaso beharko du ahalmen hori.

4.- Administrazio Kontseiluak, oro har, egoki irizitako kudeaketak, formalitateak edo betekizunak ezarri ahal izango ditu, kontseiluaren bileretan parte hartzeko administratzaile batek beste bati emandako baimena egiaztatzen duten dokumentuei dagokienez.

5.- Administratzailea ez izan arren, Zuzendaritza Nagusia kontseiluaren bileretara joan ahal izango da, kontseiluko lehendakariak gonbidatuta; hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezingo du botorik eman.

Administrazio Kontseiluko lehendakariak baimena eman ahal izango du estatutu hauetako 13. artikuluko bosgarren eta seigarren paragrafoetan aipatzen diren pertsonak kontseiluaren bileretan egon daitezen, bilera horretan aurreikusitako helburuetarako.

22. artikulua.- Kontseiluaren deliberazioak.

1.- Kontseiluburuak –kontseiluburua edo lehendakaria ez badago edo ezin badu, lehendakariordeak ordeztuko du, edo, bestela, kontseiluan urte gehien daraman kideak, eta, berdintasuna badago, kide zaharrenak– ordezkaritza-ahalordetzeak aztertu eta kalifikatuko ditu, bilerara joango diren zerrenda zehaztuko du, eztabaidak antolatu eta zuzenduko ditu, bilerara doazenei eta hitz egiteko eskubidea dutenei hitza eman edo kenduko die, eta bozketak xedatu eta zuzenduko ditu.

2.- Kontseiluaren erabakiak bertaratutakoen gehiengo osoz hartuko dira, legeak edo estatutu hauek bestelakorik eskatzen ez badute.

3.- Boto-zenbaketan berdinketa gertatuz gero, kontseiluko lehendakariak kalitatezko botoa izango du.

4.- Kontseiluaren bilera bakoitzeko aktak idazkariaren ardurapean izango dira, eta, hala badagokio, lehendakariak dituen langile eta bitartekoen laguntza izango du.

Idazkaria ez badago edo ezin badu, kontseiluko kide gazteenak ordezkatuko du.

5.- Salbuespen gisa, eta kiderik kontra agertu ez bada, kontseilua bilerarik egin gabe eta idatziz edo bideokonferentzia edo telefono-konexio anizkoitzaren bidez egin ahal izango da, legez posible bada. Kasu horretan, Administrazio Kontseiluaren bilera bakartzat hartuko da, eta egoitza sozialaren lekuan egin dela joko da.



23. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren eskumenak.

1.- Administrazio Kontseiluak honako eskumen hauek izango ditu:

- a) Estatutu hauek berariaz esleitzen dizkienak.
- b) Batzar Nagusien erabakiak betearaztea.
- c) Sozietatearen ordezkaritza osoa era guztietako egintza eta kontratuetan.
- d) Sozietateko mota guztietako langileak izendatzea, kontratatzea eta kargutik kentzea, eta haien eskubideak eta betebeharrak finkatzea, bai eta edozein arrazoiengatik langileei ordaindu beharreko ordainsariak finkatzea ere, Batzar Nagusiak adierazitako plantillaren eta hautaketa- eta ordainsari-irizpideen barruan.
- e) Sozietatearen zereginak antolatu, zuzendu eta ikuskatzea, eta barne-araudia proposatzea Batzar Nagusiari, enpresaren jarduerak hala eskatzen badute.
- f) Sozietatearen xedea gauzatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren egintzak eta kontratuak egitea, bai eta sozietatearen xedearekin zerikusia duten eta trafiko juridikoari dagozkion askotariko negozio eta eragiketak ere.
- g) Sozietateari komeni zaizkion kreditu- eta mailegu-eragiketak adostea, bai eta abal eta fidantzei dagozkienak ere.
- h) Sozietatearen aurrekontuak eta programak prestatzea, dagozkion baimenak eta fiskalizazioak alde batera utzi gabe.
- i) Kontuak, balantzeak, ekitaldi sozialeko kudeaketaren azalpen-memoria eta araudi aplikagarriak eskatzen dituen beste dokumentu guztiak aurkeztea urtero Ohiko Batzar Nagusian.
- j) Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusietarako deialdiak erabakitzea. Lehendakariak egingo du deialdia.
- k) Komenigarritzat jotzen duena erabakitzea sozietateari dagozkion eskubideak edo akzioak baliatzeari buruz, edozein motatako bulego publiko edo pribatuen aurrean, estatukoak, autonomia aurreko edo autonomiako erakundeak, lurralde- edo erakunde-administrazioenak, organismo, epaitegi eta auzitegi arrunt berezienak, Auzitegi Gorenarenak eta Konstituzio Auzitegiarenak barne, bai eta erreklamazio edo errekurso arruntak eta apartekoak jartzearekin lotutakoei buruz erabakitzea ere; horrez gain, abokatu eta prokuradoreen aldeko auzietarako ahalorde orokorrak edo bereziak ematea, egokitzat jotzen duen moduan, eta lege prozesalean jasotako ahalmen zabalenekin, kereilak berrestekoak, posizioak absolbitzekoak eta errekursoetan atzera egitekoak barne, baita kasaziokoa ere. Sozietatearen gaiak onartzea eta konprometitzea zuzenbide pribatuko arbitrajean, ezarritako edozein modalitatetan.
- l) Funts eta ondasun sozialak erabiltzea, erreklamazioa, jasotzea eta kobratzea, dagozkion lekutik eta sozietatearen interesari komeni zaienaren arabera: gordailuak eratzeko eta ezeztatzea, bankuko, kredituko edo beste edozein motatako kontu korranteak ezartzea, mobilizatzea eta ixtea, eskudirua edo baloreak oro har ateratzea, mota guztietako banku-eragiketak egitea Espainiako edo atzerriko erakundeekin, baita Banka Ofizialarekin ere, sozietatearen funtsak erabiltzea, kanbio-letrak eta merkataritzako efektuak igortzea, endosatzea, abala ematea, onartzea, negoziatzea, protestatzea eta ordaintzea, eta, laburbilduz, bankuko eta merkataritzako zereginari dagozkion eragiketak guztiak egitea, inolako mugarik gabe.
- m) Pertsona jakin batzuei ahalordeak ematea, bete behar duten misiorako eta sozietatearen interesak hobeto defendatzeko egokitzat jotzen duen bezain zabalak, legeak eta estatutu hauek ezarritako mugen barruan.



2.- Aurreko zerrenda azalpen hutsa da, eta ez ditu inola ere mugatzen Administrazio Kontseiluak sozietatearen negozioak edo interesak gobernatzeko, zuzentzeko eta administratzeko dituen ahalmen zabalak, Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenekoak ez diren heinean.

3.- Administrazio Kontseiluko lehendakariak, kontseiluko kide gisa dagozkion ahalmenez eta legeak edo estatutu hauek esleitzen dizkionenez gain, Administrazio Kontseiluaren eta kide anitzeko gainerako administrazio-organoen erabakiak betearaziko ditu, eta sozietatearen ordezkari izango da Batzar Nagusian eta Administrazio Kontseiluan hartutako erabakietatik eratorritako egintza eta kontratu guztietan.

Era berean, sozietatea ordezkatzeko du sortzen diren auzi, espediente, administrazio, gobernuko, judizio bidezko eta judizioz kanpoko gai guztietan, bai demandatzaile gisa, bai demandatu gisa, bai beste edozein izaerarekin.

24. artikulua.- Kontseiluko kideen ordainsaria.

Administrazio Kontseiluko kidearen karguak ez du ordainsaririk jasoko, salbu eta Batzar Nagusiak besterik erabakitzen badu, aurrez estatutuak aldatuta (Kapital Sozietateen Legea, 217. artikulua).

Kontseiluak finkatuko ditu, nolana ere, bertaratze-gastuetarako dietak edota konpentsazioak, bai eta kontseiluko kideek horrekin lotuta egiten dituzten gainerakoak ere, kasu bakoitzean gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuta.

25. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren ahalmenak eskuordetzea.

1.- Administrazio Kontseiluak, kideen bi herenen aldeko botoarekin, garapen berezia behar duten gai edo negozio jakin batzuk aztertzeko batzordeak eratu eta antolatu ahal izango ditu.

2.- Aurreko kasuko quorum berarekin, Administrazio Kontseiluak kontseiluko kide baten edo Zuzendaritza Nagusiaren esku utzi ahal izango du tratamendu edo kudeaketa berezia behar duten gaien azterketa.

3.- Ezin izango dira inola ere eskuordetu Batzar Nagusiari kontuak eta balantzeak emateari buruz kontseiluak dituen ahalmenak, ez eta Batzar Nagusiak kontseiluari ematen dizkion aparteko ahalmenak ere, Batzar Nagusiak berak kontseiluari berariaz horretarako baimena ematen ez badio (Kapital Sozietateen Legea, 249 bis artikulua).


HIRUGARREN ATALA: ZUZENDARITZA NAGUSIA.

26. artikulua.-Izaera.

Batzar Nagusiak Zuzendaritza Nagusia izendatu ahal izango du, eta kargu horretarako ez da beharrezkoa izango akziodun izatea.

27. artikulua.- Eskumena.

Zuzendaritza Nagusiaren ahalmenak Administrazio Kontseiluak esleitzen dizkionak izango dira, eta edozein unetan ezeztatu edo aldatu ahal izango ditu.



28. artikulua.- Iraupena.

Zuzendaritza Nagusiaren agintaldiaren iraupena mugagabea izango da, eta Batzar Nagusiak izendapena ezeztatu ahal izango du.

IV. TITULUA

SOZietateAREN EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA.

29. artikulua.- Sozietatearen ekitaldiaren iraupena.

Sozietatearen ekitaldia urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasten da, eta hurrengo abenduaren hogeita hamaikan amaitzen.

Salbuespen moduan, lehenengo ekitaldia sozietate anonimoa eratzen den egunean hasiko da.

30. artikulua.- Ekonomia- eta kontabilitate-agiriak.

1.- Administrazio Kontseilua arduratuko da legeak nahitaez ezartzen dituen edo Batzar Nagusiak adierazten dituen liburu, erregistro, programa eta dokumentu ekonomikoak, aurrekontukoak eta kontabilitatekoak eramateaz eta formulatzeaz.

2.- Aurreko atalean aurreikusitakoa gorabehera, akziodun izateagatik administrazio-agiri jakin batzuk bete behar dituzten akziodunek baldintza hori bete beharko dute.

31. artikulua.- Kontu-zentsura.

Sozietatearen kontuak Batzar Nagusiaren irizpidearen mende utzi aurretik, Administrazio Kontseiluak kontu horien zentsura xedatu beharko du, sozietatetik kanpoko pertsona edo erakundeen edo espezialisten bidez. Horien txostena Batzar Nagusiak onetsi beharko du, kontuekin batera.

32. artikulua.- Urteko kontuen formulazioa.

Sozietatearen ekitaldi bakoitza ixten denetik zenbatzen hasita gehienez ere 3 hilabeteko epean, kontseiluak urteko kontuak formulatu beharko ditu: Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, ekitaldiko ondare garbian izandako aldaketak jasoko dituen egoera-orria, fluxuen egoera-orri efektiboa eta memoria, kudeaketa-txostena eta emaitza aplikatzeko proposamena; Kapital Sozietateen Legean aurreikusitako edukia eta modua baliatu beharko ditu horiek egiteko.

Dokumentu horiek legean aurreikusitako moduren batean izendatutako kontu-auditoreek berrikusi beharko dituzte, eta txostena egin beharko dute, eta, horrez gain, Administrazio Kontseiluko kide guztiek sinatuko dituzte.

Horietakoren baten sinadura falta bada, falta den agiri bakoitzean adieraziko da, arrazioa berariaz adierazita.



33. artikulua.- Urteko kontuak onartzea.

Batzar Nagusiak onartuko ditu urteko kontuak.

Batzar Nagusiaren deialdia egiten denetik aurrera, edozein bazkidek dohainik eskuratu ahal izango ditu sozietatearen onespena behar duten dokumentuak, bai eta, hala badagokio, kudeaketa-txostena eta kontu-auditorearen txostena ere. Eskubide hori deialdian jaso beharko da.

34. artikulua.- Urteko kontuak aurkeztea.

Urteko kontuak onartu eta hurrengo hilabetearen barruan, sozietatearen egoitzako Merkataritza Erregistroan aurkeztuko da urteko kontuak onartzeko eta emaitza aplikatzeko Batzar Nagusiaren erabakien ziurtagiria, eta, horrekin batera, kontu horietako bakoitzaren ale bat, kudeaketa-txostena eta auditoreen txostena aurkeztuko dira. Urteko konturen bat edo batzuk modu laburtuan formulatu badira, hala jasoko da ziurtagirian, arrazoia adierazita (Kapital Sozietateen Legea, 279. artikulua).

35. artikulua.- Baliabideak atxikitzea.

Sozietateak bere helburuak betetzeko eratu edo eskuratzen dituen eraikin, lursail, instalazio, makina, tresna, ibilgailu, altzari eta gainerako ondasun eta eskubideak zerbitzuaren berezko helburuak betetzeari atxikita egongo dira etengabe, eta ondasun horiek hirugarrenen aurrean hartutako betebeharrei erantzungo diete lehenik.

V. TITULUA.

SOZietATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA.

36. artikulua.- Desegiteko arrazoiak.

Kapital Sozietateen Legearen 363. artikuluan ezarritako arrazoiengatik desegingo da sozietatea.


37. artikulua.- Likidatzaileak.

1.- Edozein arrazoiengatik likidatzaile izateko izendatu behar badira, Administrazio Kontseiluko kideek beren gain hartuko dituzte eginkizun horiek, Batzar Nagusiak bestelakorik xedatu ezean.

2.- Kontseiluko kideen kopurua bikoitia bada aurreko puntuan adierazitako unean, administratzaile gazteenak ez ditu bere gain hartuko likidatzailearen eginkizunak.

38. artikulua.- Prozedura.

Estatutu hauetan berariaz aurreikusi ez den guztiari dagokionez, legean ezarritakoa aplikatuko da sozietatea desegiteko eta likidatzeko.



VI. TITULUA.

ESTATUTUEN MENDE JARTZEA ETA GATAZKAK.

39. artikulua.- Estatutuen mende jartzea.

Akzio bakarra izenpetzeak berekin dakar akziodunak estatutu hauetako aurreikuspenen mende eta sozietateko organoek balioz hartzen dituzten akordio eta erabakien mende jartzea, aurkaratzeko eta akziodunak bereizteko eskubideei kalterik egin gabe.

40. artikulua.- Arbitrajepean jartzea.

Sozietatearen eta haren administratzaile edo bazkideen artean, administratzaileen eta bazkideen artean, edo azken horien artean sortzen diren auzi guztiak Bilboko Merkataritzako Arbitraje Auzitegiaren arbitrajearen mende egongo dira, eta auzitegi horri ematen zaio arbitrajea administratzeko eta arbitroak izendatzeko ardura, haren erregelamenduaren arabera, eta laudoa nahitaez bete beharrekoa izango da.

Arbitraje honetatik salbuetsita gelditzen dira alderdiek balio osoz xedatu ezin dituzten gaiak edo legeak jurisdikzio jakin baten eskumen eksklusibotzat zehazten dituenak.



